

MUSIKA DELA ETA, USTE BAINO LEHEN MUSIKARI.

*Alakiketa, alakiketa, alakiketa, kiketa, kiketa
sagarra jo dela, sagarra jo dela, sagarra jo dela, jo dela, jo dela....*

Txalapartaren hotsez eman genion hasiera aurtengo musika esperientziari. Gure haurrekin lantzen dugun musika, gehien bat abesti eta erritmoari lotua lantzen dugu eta abesten eta dantzatzen ikasteaz gain, sentsazio lasaigarri eta atseginak lortzeko asmoa ere egoten da gure baitan. Bi urteko haurrekin, hala ere, badago aukera musikaren presentzia beste modu osatuago batetan lantzeko.

Musikaren ekoizpenerako teknikak, edota tresnen ezagupenak, eguneroko saioetatik urrun geratzen zaizkigu eta arlo hau lantzeko aukera aparta dugu oiartzuarrok, hainbeste aditu ditugun herria izanda. Gainera -behin Aitor Arozenari eskerrak eman ez esan genion bezala- “txikitatik ikasten dena beti da oroigarri” eta hain zuzen hori da guri, irakasleoi mugitzen gaituena haurrentzat gauza interesgarriak prestatzeko garaian. Haurren mundua musikaz inguratzeak badu eragina musikaren zaletasuna pizterakoan, eta, are gehiago, mundu hau zuzenean, modu bizian, beraiek partaide izanik, etab. bizituz gero, zaletasuna areagotzen diegula, zalantzarik ez daukagu.

Laguntzaile asko izan ditugu proiektu hau aurrera eramaterakoan. Batzuk haurren gurasoak izan dira musika jotzera etorri direnak, beste asko ikastolako ikasle izan eta era berean musikariak direnak. Tartean guraso ohiak, eta, nola ez, herriko beste laguntzaileak ere bai .

Ergoingo Herri Musikaren Txokoa ikustera ez ginen joan baina bai ordea bertako altxorra ikastolara ekarri. Juan Mari Beltranek gustu handiz erakutsi zizkigun haurrek musika egiteko betidanik erabili dituzten tresnak: kili-kalaskak, intxaurreak, burrunbak, txepetak eta ohiko beste tresna piloak. Mago baten antzera maletaz kargaturik azaldu zitzaigun eta instrumentu guztiak banan-bana atera eta jotzen hasi zenean, Hamelingo flauta jotzailearena gertatzeko arrisku osoa eduki genuen berarekin.

Gure 2 urteko txikiek oso garbi utzi digute badutela nahiko oharmen gaitasun maila, nahiko hizkuntza eta oroitzapen gaitasunik, musikaren inguruan hamaika gauza ikasteko. Tinbalak, bibolina, arpa, flauta, alboka edota gaita, txistua, trikitixa eta panderoa bezain ezagunak egin zaizkie eta une honetan gelako musika arrunta bihurtu zaigu tresna bakoitzaren hotsa.

Karrikako Karmen Berasategik erakutsi zigun bezala, bagoaz haurrekin kantatzen:

*Ave Maria Purisima, Jangoikoak gabon,
Deklaratzera nua, zer desio degun,
Toberak jotzera gatoz, bost edo sei lagun...*